

Euskal Administrazioen gastu arrunta %7,5 gehitu zen 2004. urtean


Finantzen zor bizia BPGaren %6,5ekoa izan zen, hau da, aurreko urtekoa baino bi hamarren txikiagoa

EUSTATEN datuen arabera, euskal administrazioen gastu arruntak (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udaletako administrazioak, erakunde autonomoak eta udalaz gaineko erakundeak) %7,5 gehitu ziren 2004ko kontabilitate-ekitaldian. 2004ko ekitaldi horretan, guztira 9.552,2 milioi euroko gastua (%+5,8) eta 11.584,4 milioi euroko sarrera arruntak izan ziren; beraz, tasa hori urtean %9,2 igo da.

Aurreko elementuen bilakaeraren ondorioz, eragiketa arrunten saldoa (sarrera arruntak ken gastu arruntak) 2.032 milioikoa izan zen; hain zuzen, kopuru horrek %18,2an gaititu zuen aurreko urtekoa. Aurreko urteko aurrezki gordina 1.720 milioikoa izan zen.

Zerga-sarrerak gastu arrunt guztien ia %90 izan ziren, eta %8,1eko aldakuntza positiboa ekarri zuten. Horien artean, BEZaren ziozko sarrerak %12,5 gehitu ziren urtean.

**Euskal administrazioen zerga-sarreraren banaketa.
2004. urtea. (%)**



Iturria: EUSTAT

Zerga bereziak %11,2 gehitu ziren 2004. urtean eta sozietateen gaineko zergak %10,3. PFEZk eta udal-zergeek hazkunde txikiagoko bilakaerak izan zituzten, hau da, %2,3 eta %2,6ko hazkundeak hurrenez hurren.

Gastu arruntaren kapituluetan, langileriaren gastuek neurrizko bilakaera izan dute: %3,7 gehitu dira urtean, hau da, 2003. urtean baino puntu bi eta bi hamarren gutxiago. Transferentzia arruntak –itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak eta laguntzak- %11,2 gehitu ziren, aurreko urtean baino puntu bat eta bi hamarren gehiago alegia. Beste gastu arruntak –funtzionamenduaren gastuak- bilakaera ertaina izan zuten, %6,6koa. Ondorioz, transferentzia arruntak izan ziren gorako joera eman ziotenak gastu arruntaren guztirakoari (%7,5), gastu arruntaren ia %40 izan zirelako.

Eragiketa arrunten saldotik finantzazkoa ez den aurrekontuko saldora igarotzeko kapital-eragiketen sarrerak eta gastuak kontabilizatu behar dira. 2004. urtean, kapital-sarrerak %4,2 gehitu ziren baina kapital-gastuak (inbertsio errealak gehi kapital-transferentziak) %1,8 gutxitu ziren. Kopuru absolutuetan, lehenengoek 256,3 milioi izan zituzten eta bigarrenak 1.922,8 milioi; kapital-eragiketen saldoa, horrenbestez, negatiboa izan zen (-1.656,6 milioi).

Euskal administrazioen likidazio finkatua. 2004-2003

mila euro	2.003	2.004	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	11.393.778	12.442.799	9,2%
Eragiketa Arruntak	10.605.954	11.584.487	9,2%
-Zerga Sarrerak	9.602.300	10.382.350	8,1%
PFEZ	3.022.246	3.091.369	2,3%
Sozietate-zerga	1.041.402	1.148.605	10,3%
BEZ	3.266.787	3.675.433	12,5%
Zerga Bereziak	1.208.827	1.344.756	11,2%
Udal-zergak	503.982	517.250	2,6%
Bestelako Zergak	559.056	604.937	8,2%
-Bestelako sarrera arruntak	1.003.654	1.202.137	19,8%
Kapital-eragiketak	246.102	256.323	4,2%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	10.852.056	11.840.810	9,1%
Finantza-eragiketak	541.722	601.989	11,1%
GASTUAK GUZTIRA	11.433.152	12.093.699	5,8%
Eragiketa Arruntak	8.885.968	9.552.250	7,5%
Langileria Gastuak	2.429.192	2.518.879	3,7%
Transferentzia Arruntak	3.271.957	3.638.877	11,2%
Bestelako Gastu Arruntak	3.184.819	3.394.494	6,6%
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.957.593	1.922.833	-1,8%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	10.843.561	11.475.083	5,8%
Finantza-eragiketak	589.591	618.616	4,9%
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.719.986	2.032.237	18,2%
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	8.495	365.727	4205,2%

Iturria: EUSTAT

Eragiketa arrunten saldoari kapital-eragiketen saldoa gehituz gero finantzazkoa ez den aurrekontu-saldoa aterako da; hain zuzen ere, azken saldo hau 365,7 milioikoa izan zen 2004. urtean, eta aurreko urtean 8,4 milioikoa.

Euskal administrazioen zor biziak 2001. urtean izan zuen kuotarik txikiena, 2.776,4 milioi izan zirelako ordaindu gabe; baina 2004. urtean 3.497,6 milioiraino igo zen. Azken urte horretan, gainera, ordaindu gabeko 371,9 milioiko zorra amortizatu zen baina 520,6 milioiko zor berria ere egin zen; beraz, zorraren guztirakoa gehitu egin zen.

Bestalde, euskal administrazioen finantza-zorra (BPGari dagokionez) %6,76koa izan zen 2003. urtean baina 2004. urtean %6,56ra jaitsi zen. Hori dela eta, BPGk zorrak baino hazkunde-tasa handiagoa izan zuen.

Euskal administrazioen datu finkatuak. 2004. urtea

	mila euro				
	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	11.584.487	6.647.206	1.906.573	5.754.476	3.723.930
GASTU ARRUNTAK	9.552.250	5.660.600	1.748.179	5.311.896	3.279.273
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.032.237	986.606	158.394	442.580	444.657
KAPITAL SARRERAK	256.323	46.854	60.935	176.927	134.118
KAPITAL GASTUAK	1.922.833	821.046	143.142	612.766	508.390
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZIARIOA	365.727	212.414	76.187	6.741	70.385

ZOR BIZIA (Amortizatzeke04-12-31)	3.497.582	1.964.186	131.695	993.736	407.965
--	-----------	-----------	---------	---------	---------

Iturria: EUSTAT

Euskal administrazioen aurrekontu-plantilla 59.378koa izan zen 2003. urtean eta urtebete geroago, 2004. urtean, 59.606koa izan zen.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose M^a Agirre Eskisabel

Tel:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es